



AIARAKO UDALAK 2024ko URTARRILAREN 18an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Prudencio Otegui Echevarría jauna.

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez andrea
Iñigo Fraile Almanchel jauna
Iratxe Parro Uzquiano andrea
Izaskun García Aresti andrea
Irantzu Apodaca Sánchez andrea
Gentza Alamillo Udaeta jauna
Iñigo Pinedo Vadillo jauna
Montse Angulo Solloa andrea.
Unai Campo Arenaza jauna
Susana Martín Benavides andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lau urtarrilaren hemezortzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Osoko Bilkurako gai-zerrendako puntuak eztabaidatzen hasi baino lehenago, Iñigo Fraile Almanchel zinegotzi jaunak (EH BILDU) hartu du hitza Hodei Muñoz zorientzeko, ziklokroseseko munduko txapelduna baita.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko urtarrilaren 18an egindako ohiko osoko bilkurako akta

Ez da gaiaren gaineko iruzkin egin, beraz, abenduaren 21ean eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.



2.- EH Bildu udal-taldeak Aiaraldeako ARABA BUSeko lineen gabeziei buruz aurkeztutako mozioa

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta mozioaren edukia azaldu du euskaraz.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko bere taldea abstenitu egingo dela, jada Batzordean azaldu baitzuen Aldundia “Araba Bus” garraio-zerbitzuaren inguruan hausnartu eta hobekuntzak egiteko unean dagoela. Ekarpinak egiteko epea irekitzen ari dira; hortaz, inkestan ari zena informazio batzordean landu daiteke, eta egiteke hobekuntza gisa aurkeztu. Horretaz gain, adierazi du “Araba Bus”ari buruz bakarrik hitz egitea, bere ustez, motz geratzen dela, eskaeraren araberako taxiarena era dagoelako; izan ere, badirudi ez dela egokia. Era berean, gaineratu du udalerriko garraioari buruz hitz egin daitekeela, Aldundiak horretarako laguntza-ildoak baitu, eta herrien arteko mugikortasuneko arazoak konpon litezke.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du mozioan garraio-zerbitzuari buruz ari direla. Horretaz gain, adierazi du 30ean 18:00etan Administrazio Batzarretarako deia egingo dutela, eta, besteak beste, mugikortasuna eztabaidatuko dutela. Helburua da Batzar bakoitzak gaiari buruz dituen ekarpinak egitea.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta adierazi du gustatuko litzaiokeela batzordeetan Administrazio Batzarrei bidaliko zaizkien dokumentua lantzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) euskaraz erantzun du iritzia ezagutzeko inkesta dela, besterik ez, eta adierazi du inkesta bidaliko dietela eta ekarpinak egiteko denbora izango dutela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ondo legokeela bileretara joan aurretik batzordeetan gaia lantzea. Gaineratu du berriz ere informazioa berandu heldu zaiela; berandu edo Batzarretan bertan enteratzen diren hirugarren edo laugarren aldia da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du mugikortasunaren gaia jada eztabaidatuta zegoela, eta, egin behar duten lana kontuan hartuta, gauza batzuek ihes egiten dietela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz adierazteko aurreko legealdian ere gertatzen zela, baina ez zituzten aitzakiak onartzen.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) euskaraz erantzun du berriz ez gerta dadin saiaturiko direla, eta hurrengoan lehenago abisaturiko dutela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta adierazi du aurreko legealdian arazo asko sortzen zirela aldeztu aurretik abisatzen ez zituztenean. Aste honetan, gaineratu du, jaietarako bilera egon da, eta aurreko astean ez zen kultura batzorderik egin, eta bi jai-bilera egin dira inolako batzorderik egin gabe.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du gogorarazi nahi duela jaien programa informazio batzordeetan erabaki zela, eta orain guztien artean programa erabakiko da.

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko lehen programa irekia egiten zela, bilerak egiten ziren, eta horietan, gainera, atzo egon ez zen teknikaria egon ohi zen.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko beste egunean bilera jendeak ekarpenak egin eta bere iritzia adierazteko egin zela, ez zen ezer erabaki; lur-hartzea izan zen, eta orain hasiko dira programa antolatzen.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:
ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ)
ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- EH Bildu udal-taldeak Aiaraldeako ARABA BUSeko lineen gabeziei buruz aurkeztutako mozioa.

IKUSI DA.- 2024ko urtarrilaren 9an eginiko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Sozio-sanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo soilez, honako hau ERABAKI du:

LEHENENGOA.- EH Bildu udal-taldeak Aiaraldeako ARABA BUSeko lineen gabeziei buruz aurkeztutako mozioa onestea; hau dio, hitzez hitz:

AIARALDEAKO ARABA BUS-EKO LINEEN GABEZIEI BURUZKO MOZIOA

Gure herrietan bizitzeko baldintza onak nahi ditugula esaten dugunean, lau ardatz nagusietan jarri behar dugu arreta: enplegua sortu, sustatu eta babestu behar dugu; zerbitzuak, gure bizitza duintasunez garatzeko behar den guztia bermatu behar dugu (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, ostalaritza, merkataritza...); etxebizitza eskuratu ahal izatea eta azkenik garraio publiko, merke, fidagarri eta eraginkorra bermatzea. Are gehiago, gure auzokideak ikastera eta lan egitera Gasteizera joan behar direnean.

MOCIÓN SOBRE DEFICIENCIAS EN LAS LINEAS DE ARABA BUS DE AIARALDEA

Cuando decimos que queremos unas buenas condiciones para vivir en nuestros pueblos, debemos centrarnos en los cuatro ejes principales: crear, fomentar y proteger el empleo; los servicios, tenemos que garantizar todo lo necesario para que nuestra vida se desarrolle dignamente (sanidad, educación, servicios sociales, hostelería, comercio...); poder acceder a la vivienda; y finalmente garantizar un transporte público, barato, fiable y eficiente. Mas aun cuando nuestros vecinos y vecinas se tienen que ir a estudiar y trabajar a Vitoria.



Horregatik, fokoa mugikortasunean jarriko dugu. Aiaraldeko mugikortasuna 15. eta 16. lineen inguruan egituratzen da. Gasteizera joateko 15. linea eta herri txiki eta handien arteko lotura 16. arekin. Ildo honetan, hauek dira linea hauek metatzen dituzten arazoak eta gabeziak:

- Herritarren kontzientziazioaren handiagotzeak garraio publikoaren erabilera handitu du, beraz, pertsona asko lurrean geratzen dira eta hurrengo autobusaren zain egon behar izaten dute. Horregatik garraio publikoaren handitzea behar da.
- Beharrezkoa da maiztasun handiagoa izatea eta zerbitzua indartzea autobus gehiagorekin, erabiltzaile guztiek alde aurretik plaza gehiago izango dutela bermatzeko.
- Azkenik lineetako txartelen fakturazio eta erreserba ereduak birpentsatu behar da. BAT txartelarekin erostea ezin da izan plaza ziurtatzeko modu bakarra (Aiaraldeko erabiltzaile gehienok BARIK txartela erabiltzen dugu) eta are gutxiago BAT txartelaren prezioa BARIKaren bikoitza denean. Egia da, txartel horrekin, plazak erreserbatzeko bitarteko bat dagoela baina herriarentzat ez da erabiltzeko erraza eta, gainera, behin eginda ez da erabat bermatzen plazaren erreserba.

Horregatik guztiagatik, eta Arabako Foru Aldundiak Arabako Mugikortasun Plana aztertze eta ebaluatze prozesua hasi duela aprobetxatuz, Aiarako EH Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituraren Sailari eskatzen dio Aiaraldea Gasteizekin lotzen duen Araba Busen linea (15. linea) indartu eta handitu dezala, biztanleriaren mugikortasuna bermatzeko.

Por eso, pondremos el foco en la movilidad. La movilidad en Ayala se estructura en torno a las líneas 15 y 16. Línea 15 da acceso a Vitoria-Gasteiz y la línea 16 conecta pequeñas y grandes localidades. En esta línea, estos son los problemas y carencias que acumulan estas líneas:

- El aumento de la concienciación ciudadana, ha aumentado el uso del transporte público, por lo que muchas personas se quedan en tierra y tienen que esperar al próximo autobús. Por eso hace falta un aumento del transporte público.
- Es necesario aumentar la frecuencia y reforzar el servicio con más autobuses, para garantizar un mayor número de plazas previas para todos los usuarios.
- Finalmente hay que repensar el modelo de facturación y reserva de billetes de estas líneas. No puede ser que la única manera de asegurar una plaza sea comprándola con la tarjeta BAT (la mayoría de los usuarios de Aiaraldea utilizamos la tarjeta BARIK), sobre todo cuando el precio de la BAT duplica el precio de la BARIK. Es cierto que con esta tarjeta hay un medio de reserva de plazas, pero no es fácil para los ciudadanos y además acumula muchos errores que realmente no garantizan esa reserva.

Por todo ello, y aprovechando que la Diputación Foral de Álava ha iniciado el proceso de análisis y evaluación del Plan de Movilidad de Álava, el grupo municipal de EH Bildu de Ayala ha presentado la siguiente moción para su debate y aprobación en pleno:

1. El Ayuntamiento de Ayala solicita al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava que refuerce y amplíe la línea de Araba Bus (línea 15) que une Aiaraldea con Vitoria-Gasteiz, para garantizar la movilidad de la población.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari autobusen maiztasuna handitzeko eta erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten ordutegietan ematen den zerbitzua indartzeko eskatzen dio.
- El Ayuntamiento de Ayala insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a incrementar la frecuencia de los autobuses y reforzar el servicio prestado en los horarios más utilizados por los usuarios.
- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari 15. eta 16. lineak sar daitezen beti Luiaondon eta geraldia bertan egin. Egun, batzuetan, bi autobus horiek alboko saihebidetik pasatzen dira herrian sartu barik .
- El Ayuntamiento de Ayala insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a realizar paradas en las líneas 15 y 16 siempre en Luiaondo. Hoy en día, a veces, estos dos autobuses pasan por la circunvalación sin entrar en el pueblo.
- Aiarakoko Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailari eskatzen dio Araba Buseko lineen zerbitzua egokia (eta kalitatezkoa) izan dadin beharrezkoak diren tresna guztiak abian jar ditzala, erabiltzaileen onerako (plazarik gabe ez gelditzeko, itxaronaldi luzeak ekiditeko...).
- El Ayuntamiento de Ayala solicita al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava que ponga en marcha todas las herramientas necesarias para que el servicio de las líneas de Araba Bus sea adecuado (y de calidad) en beneficio de los usuarios (no quedarse si plazas, evitar largas esperas...).
- Aiarakoko Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailari eskatzen dio txartelen erreserba eta erosketa eredu funtzionamendua berrikusteko eta egokitzeko, erreserba eta/edo erosketa hori %100ean eraginkorra izan dadin, Araba Bus-eko linea guztietan erabiltzaile guztiei sarbidea bermatzeko.
- El Ayuntamiento de Ayala solicita al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava que revise y adapte el funcionamiento de los modelos de compra y reserva de billetes, de forma que dicha reserva y/o compra sea 100% efectiva y garantice el acceso a todos los usuarios en todas las líneas de Araba Bus.
- Aiarakoko Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari eskatzen dio BAT txartel pertsonalizatua egiteko aukera eskain dezala Aiaraldeko bulegoetan, gure bizilagunak Gasteizko bulegora egitera nahitaez joan ez daitezen.
- El Ayuntamiento de Ayala solicita al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava que ofrezca la posibilidad de adquisición de la tarjeta personalizada BAT en sus oficinas en Aiaraldea a fin de evitar el desplazamiento obligatorio de nuestras vecinas y vecinos a su oficina de Vitoria-Gasteiz.



7. Akordio hau Arabako Batzar Nagusietara eta Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailari bidaltzea.
7. Remitir el presente acuerdo a las Juntas Generales de Álava, así como al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava.

3.- Galdakao-Usansoloko Ospitalean oinarrizko pediatria zerbitzu bat eta arrisku baxuko erditzeen artatze-zerbitzuaren aldeko mozioa

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta mozioaren edukia azaldu du euskaraz.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko bere taldea abstenitu egingo dela, aurreko legealdian egin zuten bezala. Gaineratu du adierazten dutela tokia egongo dela Galdakaoko ospitalean egingo diren obren ondoren; baina, obrak egiten direnean jada onetsitako zerbitzuen plangintza eta antolaketa dago, eta berak uste du ezingo dela aurreikusita ez zegoen zerbitzua jarri. Eraikinean aparkaleku handia egingo da gabeziak konpontzeko, eta, unibertsitate ospitalea bihurtuko denez, irakasteko unitate gehiago beharko dira, eta kanpoko kontsultetarako toki gehiago gaituko da. Era berean, gaineratu du orain begirada Galdakaoko ospitalean dagoela, erreferentzia gisa Gurutzetako ospitalea hartzea eskatzen denean.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza erantzuteko Bizkaian ez dagoela mozioa eskatzen den zerbitzua, ez Gurutzetan, ez Basurton, eta ez Galdakaon. Gaineratu du galdetu dutela, eta adierazi dute tokia dagoela unitate hori egiteko, eta, gainera, badakite EAJk beste udal batzuetan mozioa onetsi duela.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ)
ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Galdakao-Usansoloko Ospitalean oinarrizko pediatria zerbitzu bat eta arrisku baxuko erditzeen artatze-zerbitzuaren aldeko mozioa.

IKUSI DA.- 2024ko urtarrilaren 9an eginiko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Sozio-sanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo soilez, honako hau ERABAKI du:



LEHENENGOA.- Galdakao-Usansoloko Ospitalean oinarrizko pediatria zerbitzu bat eta arrisku baxuko erditzeen artatze-zerbitzuaren aldeko mozioa onestea; hau dio, hitzez hitz:

MOZIOA

Galdakao-Usansoloko Ospitalean oinarrizko pediatria zerbitzu bat eta arrisku baxuko erditzeen artatze-zerbitzuaren aldeko mozioa.

ZIOEN ADIERAZPENA

1. Bizkaiko Egitura Sanitario Integratuen artean, Barrualdeko ESla da eremu geografiko zabalena hartzen duena (eta ez bereziki garraiobide onenekin). 300.000 biztanle baino gehiago bizi gara bertan (sei bailara, 70 udalerrri). ESI honetan kokatzen da Aiara gure udalerrria eta Usansoloko Ospitalea da guretzako erreferentziatzko ospitalea.
2. Osasun-arreta, orohar, honela antolatzen da. Betiere, ESletako biztanle kopurua kontuan hartuta, oinarrizko eta konplexutasun gutxiko zerbitzuak (ohikoenak) deszentralizatzen dira, eta zerbitzua herritarrengana hurbiltzen da, ahalik eta arreta individualizatuena emateko. Konplexutasun eta espezializazio handienetako prozeduretarako zerbitzuak, ordea, zentralizatu egiten dira espezializazio handienetako ospitaleetan. Gure erreferentziatzko ospitalea, hots, Galdakao-Usansolokoa 5. ospitalea da EAEn dauden 12 akutuen ospitaleetatik, bai biztanle kopuru aldetik, ohe kopuru aldetik, azpiegituraz eta artatzen diren zerbitzu espezializatuen aldetik. Baina historikoki, Galdakao-Usansoloko Ospitaleak eduki duen eta gaur egun ere duen osasun-arretaren gabezia nabarmenatariko bat da ez izatea oinarrizkoak diren pediatria eta erditzeen eremu bat. EAeko 12 ospitaleetatik 7k badute pediatria eta erditze gune bat, baina gure ospitaleak ez. Ginekologiako zerbitzu bat badugun arren, ez dago ez pediatria zerbitzurik, eta, honen ondorioz, erditzeak artatzeko gunerik ere ez.

MOCIÓN

Moción a favor de un servicio básico de pediatría y atención a partos de bajo riesgo en el Hospital de Galdakao-Usansolo.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

1. La OSI Barrualde es, de entre las organizaciones sanitarias integradas de Bizkaia y una parte de Álava, la que ocupa el ámbito geográfico más extenso (y además al ser en gran parte una zona más rural, no dispone de los mejores medios de transporte), habitado por más de 300.000 personas, repartidas en seis valles y 70 municipios. En ella se ubica nuestro municipio Ayala y nuestro hospital de referencia es el de Galdakao-Usansolo.
2. La atención sanitaria, en general, se organiza (teniendo en cuenta el número de habitantes de las OSIs) descentralizando los servicios básicos y de baja complejidad (los más habituales), acercando así los servicios más básicos a la ciudadanía para prestar una atención lo más individualizada posible. Los servicios para procedimientos de mayor complejidad y especialización, sin embargo, se centralizan en los hospitales de mayor especialización. Nuestro hospital de referencia (Galdakao-Usansolo) es el 5º hospital de los 12 hospitales de agudos existentes en la CAPV, en cuanto a número de habitantes, camas, infraestructura y servicios especializados atendidos. Pero históricamente, una de las carencias más notables en la atención sanitaria que ha tenido y tiene actualmente el Hospital de Galdakao-Usansolo es la ausencia de un área pediátrica y de partos de bajo riesgo. 7 de los 12 hospitales de la CAPV cuentan con servicio básico de pediatría y partos, pero nuestro hospital no. A pesar de que disponemos de un servicio de ginecología, no existe un servicio de pediatría, y como consecuencia no pueden atenderse los partos.



Egoera horrek zuzeneko eragina du gure herritarren osasun-arretan. Gure herriko emakume haurdunak ez dagokien eta ezezaguna zaien beste ESI bateko ospitalera joan behar izaten dute erditzera: Gurutzetako Ospitale erraldoira, besteak beste.

3. Azken urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako beste herrialdeetan bezalaxe, erditze-eredua asko ari da aldatzen besteak beste, emakumeen aldarriei esker), eta gomendio, bibliografía eta legedi berriak atera dira erditze-unea eta -prozesua gehiago zaintzeko (beharrezkoa ez den medikalizazioa ekidin eta arreta gizatiarragoa izateko batik bat). Osasun-arretan orohar eta erditzeetan bereziki, artatze indibidualizatuak inpaktu oso handia du bizi-kalitatean eta bizi-esperientzian. Hau dela eta, ospitaleen egitura, prozedurak eta artatzeko erak ere eredu-aldaketa horretara egokitzen ari dira apurka- apurka. Azken urteetan, gure ospitale batzuetako espazioak berrantolatu eta egokitu dituzte, intimitatea eta mugimendua ahalbidetzen duten espazioak sortzeko eta gorputz- jarrera desberdinak hartu ahal izateko tresna eta gailu berriak erabiltzen hasiak dira (hala nola, aulkiak, pilotak eta sokak). Gainera, Arabako eta Gipuzkoako zenbait ospitaletan, zehazki; Txagorritxu, Zumarraga, Arrasate, Mendaro eta Donostiako Ospitaleetan, ebidentzia zientifikoaren arabera onuragarriak diren bainuontziak ezarri dituzte (minak leuntzeko baliagarriak dira, ondorioz analgesia gutxiago behar izaten da). Bizkaiko ospitaleetan aldiz, ez dugu bainuontzidun ospitalerik.

Esta situación repercute directamente en la atención sanitaria que recibe nuestra población. Las mujeres embarazadas de nuestra comarca, se ven obligadas a acudir a otra OSI que no les pertenece y les es ajena, como es el macrohospital de Cruces a dar a luz.

3. En los últimos años, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, al igual que en el resto de Europa, el modelo de parto está evolucionando mucho (gracias, entre otras cosas, a las reivindicaciones de las mujeres) y se han establecido nuevas recomendaciones, bibliografías y legislaciones para cuidar más todo lo relacionado tanto con el momento mismo del parto como con todo el proceso (evitando la medicalización innecesaria y ofreciendo una atención más humana, entre otras medidas). En la atención sanitaria en general y en los partos en particular, la atención individualizada tiene un impacto muy importante en la calidad de vida de la paciente y en su experiencia vital. La estructura, procedimientos y formas de atención de los hospitales están adaptándose progresivamente a este cambio de modelo. Así, en los últimos años se han reorganizado y adaptado los espacios de algunos de nuestros hospitales, con el fin de crear espacios facilitadores de la intimidad y el movimiento de las mujeres. Por ejemplo, se han comenzado a utilizar bañeras para aliviar los dolores de parto, así como dispositivos para adoptar diferentes posturas corporales, como sillas, pelotas y cuerdas. En los hospitales de Txagorritxu, Zumarraga, Arrasate, Mendaro y Donostia, se han implantado bañeras ya que, según la evidencia científica, son beneficiosas (sirven para aliviar el dolor, y como consecuencia disminuyen la necesidad de anestesia epidural). Sin embargo, ninguno de los hospitales de Bizkaia, referentes para el municipio de Ayala, dispone de bañeras para la inmersión en agua durante el proceso del parto.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

4. Gipuzkoako antolakuntzan, esaterako, oinarritzekoak diren pediatria eta arrisku baxuko erditzeak deszentralizatuak daude, Bizkaian ez bezala. Bizkaian, biztanle gehiago bizitzeaz gain, Gurutzetako Ospitalean eta Basurtuko Ospitalean (bainuontzirik ez duten bi ospitale publiko handienetan) artatzen dira Bizkaia osoko erditze guztiak. Ospitale horietan, erditze asko artatzen dira egunero, izan arrisku handiko erditzeak nahiz arrisku baxukoak, denak leku berean. Emaginen eta ginekologo lan-jarduna baldintzatzea dakar horrek, arrisku baxuko erditzeen arreta indibidualizatuaren kaltetan, lehenasuna arrisku handikoek baitute.

5. Egunkarian irakurri dugunez, Osasun Sailak 28.000.000 euro bideratuko ditu Usansoloko Ospitalean 30.000 m²-ko eraikin berri bat eta aparkalekuak eraikitzeko. Eraikin berri honetan kokatuko dira 19 espezialitatetako kanpo-kontsultak, medikuntzako ikasleentzako irakasgunea, administrazioko bulegoak, liburutegia eta etxez-etxe ospitalizazio zerbitzua. Horren ondorioz, ospitaleratze eraikina asko arinduko da, eta espazio berri zabalak sortuko dira, hobekuntzak egiteko. Baina hobekuntza horien artean, ez da aipatu ez pediatria zerbitzurik, ez arrisku baxuko erditzeak artatzeko gunerik. Usansoloko ospitaleko gabezi historiko hauek betetzeko unea soilik, obrak dakartzan espazioaren berregituraketa une hau izan daiteke.

Honegatik guztiagatik, mozio hau aurkezten dugu:

Osasun Sailak Usansoloko ospitalean obrak egingo dituen une honetan:

1. Gure herriko emakumeen erditze-momentu zaurgarri hori babesteko eta haien erabakiei eta beharizanei eta gure herriko umeen larrialdiei eta ospitaleratzeei gure erreferentziako ospitalean erantzun ahal izateko, Osakidetzari eskatzen diogu bat egitea Galdakao-Usansoloko Ospitalean

4. En Gipuzkoa, por ejemplo, la pediatría básica y los partos de bajo riesgo son servicios descentralizados, a diferencia de lo que ocurre en Bizkaia, y en el municipio de Ayala, todos los partos son atendidos en el Hospital de Cruces y en el Hospital de Basurto (en los dos grandes hospitales públicos). En dichos hospitales se atiende diariamente un gran número de partos, al margen de que sean de alto o de bajo riesgo, condicionándose así a actividad laboral de matronas, ginecólogos y ginecólogas, y en detrimento de la atención individualizada a partos de bajo riesgo, ya que los de alto riesgo son prioritarios.

5. Recientemente, el Departamento de Sanidad ha anunciado una dotación de 28.000.000 euros destinada a la construcción de un nuevo edificio de 30.000 m² y aparcamientos en el Hospital de Galdakao-Usansolo. Según lo anunciado, está previsto ubicar en el nuevo edificio las consultas externas de 19 especialidades, la unidad docente del alumnado de medicina, las oficinas administrativas, la biblioteca y el servicio de hospitalización a domicilio. Como consecuencia, se liberará mucho espacio en el edificio de hospitalización, para acometer mejoras, entre las que, sin embargo, no se contempla incluir ni un servicio de pediatría ni espacios para asistir los partos de bajo riesgo.

Por todo ello, presentamos esta moción:

En este momento, cuando el Departamento de Sanidad tiene previsto realizar obras de ampliación en el Hospital de Galdakao-Usansolo:

1. Con el fin de proteger este momento vulnerable del parto de las mujeres de nuestro municipio y poder atender sus decisiones y necesidades, así como de cubrir las urgencias e ingresos hospitalarios de los niños y niñas de nuestro municipio en nuestro hospital de referencia, solicitamos a Osakidetza su adhesión a la iniciativa para la implantación de



oinarrizko pediatria eta gaur egungo gomendioak betetzen dituzten arrisku baxuko erditzeak artatzeko guneak ezartzeko ekimenarekin.

áreas de atención a los partos de bajo riesgo que cumplan las recomendaciones actuales y de un servicio de pediatría básica en el Hospital de Galdakao-Usansolo.

2. Osakidetzari eskatzen diogu, Barrualdeko ESIan eskakizunaren alde dauden beste udaletxeekin harremanetan jarri, eskaera honen aldeko jarrera izan eta lan egiteko.

2. Solicitamos a Osakidetza que se ponga en contacto con los Ayuntamientos de la OSI Barrualde que apoyen esta petición para trabajar conjuntamente a favor de esta iniciativa.

Denon esku dago osasun-arreta hobetzea, herritarron ongizatearen alde egiteko.

Está en manos de todos y de todas mejorar la atención sanitaria para contribuir al bienestar de las ciudadanas y ciudadanos de Ayala.

4.- Alkatzaren dekretuen berri ematea

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2023/691 eta 2024/10 bitarteko Alkatzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATZAREN DEKRETUA - 2023/691.- P.D.P.- Menagaraiko partzelako itxiera konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATZAREN DEKRETUA - 2023/692.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2023/15.

ALKATZAREN DEKRETUA – 2023/693 S.U.Z. TMIZeko hobaria ezezte, mugikortasun murriztua egiaztatzeagatik.

ALKATZAREN DEKRETUA - 2023/694 .- Gorobeiko Administrazio Batzarrei eta ermandeareni dirulaguntzaren ordainketa egitea, 2023an ehiza-barrutiko lurzatiak aprobetxatzeagatik.

ALKATZAREN DEKRETUA – 2023/695.- Administrazio Orokorreko Teknikariaren lanposturako poltsa eratzeko dekretua.

ALKATZAREN DEKRETUA – 2023/696 .- Etxaurren Ikastolan kanpoko arotzeria eta igarotzeko barneko bi ate ordeztzeko obren kontratua.

ALKATZAREN DEKRETUA - 2023/697.- AI.U.U.- 2023ko TMIZ ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATZAREN DEKRETUA – 2023/698.- Harsco Metals Lycrete SAU- Murgako Industrialdean solairuaren asfaltozko zimenduak jartzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATZAREN DEKRETUA - 2023/699.- Elkarkidetzaren Pentsioak.- 2023ko abenduko likidazio-faktura onestea.

ALKATZAREN DEKRETUA – 2022/700.- 2023ko abenduko aparteko ordainsariaren nominen ordainketa onestea, langileak eta alkatea.



ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/701.- FM.M.S.- Luiaondoko 3. poligonoko 1667 eta 1670 partzeletan egindako jarduerengatik asaldatutako hirigintzako ordena berrezartzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/702.- Murgako administrazio-batzarra.- Murgako basoko bideetako arekak ireki eta garbitzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/703.- Etxaurren Ikastola. Guraso-elkartea. Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2023ko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/704.- R.D.B.- Olabezarren etxebizitza eraikitzeke emandako obra-lizentzia iraungitzat jotzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/705.- Etxaurren Ikastola. Guraso-elkartea. Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen aparteko ordainsariaren nominak ordaintzea, 2023ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/706 .- Eskaera Eusko Jaurlaritzari. Irisgarritasun Unibertsala ezartzeko dirulaguntza.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/707.- Euleuk. Emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea, 2023ko lankidetzat-hitzarmena.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/708 .- Eskaera EEERI. SEEP 5000 programaren dirulaguntza, Etxaurren Ikastolako berokuntza-sistema, EUB eta aireztapena hobetzeko proiekturako, biomasako galdararen bidez.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/709.- Udalerriko talde politikoei egindako ekarpena, 2023ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/711.- 2023ko abenduko nominen ordainketa onestea, alkatea eta langileak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/712.- F.P.G.- Menagaraiko Iturribarra auzoko 7. zenbakian dagoen etxebizitza birgaitzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/713. J.B.F. Aldi baterako langile lan-kontratudunak kontratatzea, PECO 2023-24.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/714.- A.L.P. Aldi baterako langile lan-kontratudunak kontratatzea, administrari laguntzailea, PECO 2023-24.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/715.- Euskalgintza Bulegoa Itzulpenak SL- Gaztelania-euskara testuak itzultzeko eta zuzentzeko zerbitzu-kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/716.- J.J.M.G. Aldi baterako langile lan-kontratudunak kontratatzea, arkitektoa, PECO 2023-24.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/717.- Zerbitzu-langilearen lanpostua aldi baterako ordezkatzeko lan-poltsa eta peoiaren lanpostuarekin lotutako lanen unean uneko beharrak betetzeko lan-poltsa eratzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/718.- Etxaurren Ikastola. Guraso-elkartea. Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2023ko abendua.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/719.- Laguntza eskaera EEERI_Berriztagarri termikoen energia-instalazioak ezartzeko pizgarrien programa_Etxaurren Ikastola.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/720.- Dirulaguntza eskaera UDALAGUNTZA-2023_Obrak Etxaurren Ikastolan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/721.- Administrazio Batzarrei dirulaguntza ematea 2023ko obrak gauzatzeko gastuengatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/722.- Administrazio Batzarrei dirulaguntza emateko dekretua, 2023ko ordainsari teknikoen gastuengatik

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/723.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2023/16.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/724.- Euskal Fundoa.- 2023an proiektuak finantzatzeko laguntza ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/725.- Alkateak kreditu globala transferitzeko espedientea onestea, 1/2023 zenbakia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/726.- Asasam. Lankidetzaren hitzarmeneko emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/727.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, langileen eta alkatearen kotizazioa, 2023ko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/728.- Kreditu gehigarriko espedientea onestea, diruzaintzako gerakinaren kargura, eragindako finantzaketa duten gastuetarako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/1.- 2023. urterako aurrekontua luzatzea, 2024. urterako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/2.- R.S.A.- Izoriako baserriari atxikitako eraikinaren estalkian uralitazko plakak sandwich plakekin ordeztzeko obren udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/3.- M.D.A.X.B.- Aparkatzeko txartela berritzea, narriaduragatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/4.- M^aA.C.A.- Jendaurreko informazioa eskuratzea.- Erretes Lantenon dagoen 6. Poligonoko 828. partzela bereizteko espedienteko dokumentazioaren kopiak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/5.-JM.U.L.- Jendaurreko informazioa eskuratzea.- Izorian 5. poligonoko 536. partzelan eraikin bat eraikitzeke Félix Urrutiaren alde emandako obra-lizentziaren espedienteko dokumentazioaren kopiak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/6.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- Jendaurreko informazioa eskuratzea.- Menagaraiko partzela ixteko Jaime Lastagarayren alde emandako lizentzia-espeditentetako dokumentuen kopiak eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/7.- Beñat Iriondo Petralandak borondatezko eszedentzia eskatzea beste administrazio publiko batean zerbitzuak emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/8.- LYB.T.M.- Salmantongo Etxabe auzoko 12. zenbakian dagoen etxebizitzako estalkia birgaitzeko obra-hondakinak behar bezala kudeatzeko aurkeztutako fidantza itzultzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/9 – B gasolioaren hornidura Etxaurren Ikastolarentzat.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/10.- Etxaurren Ikastolan berokuntza, ur bero sanitarioa eta aireztapena instalatzeko lanak finantzatzeko Udalaguntza 2021 programaren dirulaguntzaren lehen zatia itzultzea Eusko Jaurlaritzari.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5.- Galde-eskeak

Galde-eskeak

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) AOT lanpostua ordezkatzearen gaia nola dagoen galdetu du.

Udaleko idazkariak erantzun du Udalak duen poltsarako deia egin dela, eta bertan zeuden hiruetako inork ez du interesa agertu, lanean ari direlako.

Poltsa bat eskatu zaio IVAPi, udal honetan onetsita dagoen ordezkapenen araudiak hala ezartzen duelako. Zerrenda horretara deitzen hasi gara, baina batzuek uko egin diote, lanean ari direlako.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta esan du prentsaren bidez jakin zutela informazioa, Radio Llodion, alkatearen iruzkinen bidez, zinegotziak lehen sektoreko batzordean azaldu baino lehen. Horregatik, hurrengo aldiatarako kontu handigoz ibiltzeko eskatu du.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Luiaondoko kalistenia parkeari buruz galdetzeko.

Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza eta erantzun du jartzea pentsatu zen lekua Luiaondoko Administrazio Batzarrari lagata zegoela, eta ezin dela hor jarri.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du hori jakina zela Udal honetan, joan den legegintzaldiko Osoko Bilkura batean onartu baitzen espazio hori Batzarrari lagatzea, eta, beraz, zinegotzi batzuek badakite hori.

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta galdetu, orduan, ea non jarriko den kalistenia parkea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza euskaraz erantzuteko beste leku bat bilatzen ari direla kokatzeko.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Menagaraik eta Etxegoienek idatziz egindako eskaera bat dagoela aipatzeko, eta alkateak erantzuteko konpromisoa hartu zuela, eta elkarte batek, Erretaiar de Retesek, eskaera bat aurkeztu zuela idatziz. Elkarrekin eta baliabide gutxi dituzten Administrazio Batzarrek kontsultak idatziz egiten badituzte, idatziz erantzun beharko litzaike.



Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza, eta erantzun die pertsonalki egon dela harremanetan beraiekin, bai Batzarrekin, bai Erretaiar elkartearekin, elkarte horretako presidentea ia egunero egon baitzen harremanetan Erretesko jaiak izan zirenean.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du, nahiz eta aurrez aurre edo telefonoz erantzun, logikoena idatziz erantzutea dela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta esan du jakin dutela Urbidek batzar bat egin duela presidentea aukeratzeko. Gai hori ez da inongo batzordetan aztertu, eta ez da ezagutzen Udalak batzar horretan izan duen jarrera, eta horregatik eskatu du EH Bilduk eta Aiara Batuzek horren inguruan duten jarrera ezagutu nahi dutela.

Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) botoa abstentzioa izan zela erantzun du.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta esan du harrিতa dagoela jarduteko moduarekin; izan ere, joan den legegintzaldian erabakiak gobernu-taldeak bakarrik hartzen zituela egoten zen, eta, orain, jarduteko modua berbera dela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta esan du ez zirela konturatu; izan ere, ez zuten gai horri buruz hitz egin bi taldeen artean.

- Iñigo Pinero Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta esan du hirigintza batzordea deitu ez denez, hainbat gai dituela planteatzeko. Lehenengoa da ea nola dagoen Garavillako espedientea.

Karmele Población Martinez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta erantzun dio, euskaraz, urrian beste dokumentu bat bidaliko zutela eta oraingoz ez dutela erantzunik jaso. Kasu egiten duten ikustera joan beharko dela gaineratu du.

- Iñigo Pinero Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz galdetzeko ea zer egoeratan dagoen Plan Orokorra. Gaineratu duenez, mezu elektronikoko bat bidali zen Gerardorekin bilera bat egingo zela jakinarazteko, baina ez dakigu bilerarik egon den edo horren inguruan aurrera egin den.

Karmele Población Martinez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza euskaraz erantzuteko bi arazo garrantzitsu daudela: Zuhatza eta Menagarai. Gerardorekin bilera bat egin zen eta erabaki bat hartu behar du.

Iñigo Pinero Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esan du beste gauzaren bat geratzen zela argitzeke; izan ere, zenbait alegazio ebazteke zeuden, eta horiei ekin egin behar zitzaien.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Alday Fundazioaren sarrera-erregistro bati buruz galdetzeko, eta egoera nola dagoen galdetu du.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Irantzu Apodaca Sanchez zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza erantzuteko fundazioko presidentek ez duela oraindik 2023ko hitzarmena sinatu, alegatzen du uste asko daramatzatela promesekin eta beti sinatzen duela, baina gero ez dela hitzartutakoa betetzen. Hitz egin da haiekin, eta esan zaie hitzarmena sinatu ezean ez direla ordainketak egingo.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza eta esan du gizarte laguntzailearekin hitz egin duela, arazoa nola konpontzen zen ikusteko, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin hitz egingo du.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea zer egoeratan geratzen den udala hitzarmena sinatzen ez badute. Aurreko urteetan asko kostatu da hitzarmenak onestea eta egoera kezkarria da.

Irantzu Apodaca Sanchez zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta esan du berak uste duela sinatu egingo dutela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta esan du hainbat bilera egin dituztela haiekin eta 2024ko hitzarmenaren zirriborroa begiratzen ari direla.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta esan du aurreko legegintzaldian ahalegin handiak egin direla Aldundiak diruz laguntzen ez duen hitzarmen horretan gastu berriak sartzeko, eta udal honek zerbitzu horren alde egin du beti. Problematikarekin kezkatuta daudela esan du, eta gaineratu du, kanpotik datorrenaren bidez jakin behar izan dutela. Eta gaineratu du zirriborro bat lantzen ari badira, ondo legokeela zirriborro hori edukitzea eta, hortik abiatuta, ekarpenak egitea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiar Batuz) esan du haiekin bilera bat izan zutela eta ekarpenak jaso zituztela, gero gizarte-laguntzailearekin eta idazkariarekin kontsultatzeko eta ekarpen horiek zuzenak ziren ala ez erantzuteko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz eta esan du Alday Fundazioak bere garaian egin zuen lana aitortu eta eskertu beharrekoa dela, baina kezka handia dute gai horren inguruan, eta jakinaren gainean edukitzeko eskatu du.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeia eta hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita lauko urtarilaren hemezortzian.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.